

Eusko Legebiltzarreko Mahaiari

Aintzane Ezenarro Egurbide Aralar taldeko bozeramaileak, indarrean den Erregelamenduaren babesean, **Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako zuzendaria Mariola Serranoren AGERRALDI ESKARIA** egiten du, “harrera etxea uzten duten genero indarkeria jasan duten emakumeei jarraipenik egiten zaien azal dezan”, Gizarte Politikak, Lana eta Berdintasuna batzordearen aurrean.

ZIOA

Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortzeko arrazoietakoa bat genero-indarkeriaren inguruko gaiak kudeatu eta jorrazteko leihatila bakarra egon dadila izan zen, gobernuak azaldu zuenez. Are gehiago, Genero Indarkeriaren Biktimentzako Osoko Laguntza bere eginkizunen artean dago, zerbitzuak era koherentean antolatzeke eta indarkeria-mota horren biktimei babes osoa ematen zaiela bermatzeko asmoz.

Pentsatzekoa da, beraz, indarkeria matxista jasan duten emakumeentzako erakundeek eskaintzen dituzten harrera etxeen koordinazioa ere egiten duela Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak. Hori dela eta, Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzaren agerraldia eskatzen du, Gizarte Politikak, Lana eta Berdintasuna batzordearen aurrean:

AGERRALDI ESKAERA:

Azal dezan ea badagoen euren borondatez harrera etxeetatik joatea erabakitzen duten emakumeen egoerari jarraipena egiteko eta laguntza emateko protokolorik, eta egon ezean zer nolako urratsak eman nahi dituzten egun duten babesa hobetzeko.

Gasteizen, 2010eko urriaren 8an

**Aintzane Ezenarro Egurbide
Aralar taldeko bozeramailea**